

Euskarazko diktaketa-sistema berria, dibertsitate funtzionala duten haur eta gazteentzako lagungarri

- ✓ AskHezi diktaketa-plataformak euskarazko hizketa transkribatzeko balio du, eta, ahozko komandoen bidez, aldaketak egin edo akatsak zuzendu daitezke.
- ✓ Haurren ahotsekin funtzionatzeko entrenatu da adimen artifizialeko sistema.
- ✓ Plataforma erabat garatuta dago, baina martxan jarri eta erabilera zabaldu ahal izateko baliabideak lortzea dute orain helburu proiektuko kideek.

Donostia, 2025eko martxoaren 20a

Haurren ahotsekin ongi dabilen euskarazko diktaketa-sistema berria garatu du [Orai NLP](#) adimen artifizialeko zentroak, Euskal Herriko [Ikastolen Elkartea](#), [Seaskako Integrazio Batzordeak](#) eta Nafarroako [Sortzen Elkartea](#) bultzatuta, [Languneren](#) aholkularitzarekin eta 'Euroeskualdeko hiritartasuna' deialdiko dirulaguntzari eta SPRIren dirulaguntzari esker.

“Sistema hau oso baliagarria izango da desgaitasun motorrak dituzten haur eta gaztetxoek ikasketa-prozesuan —dio Igor Leturia Oraiko hizketa-teknologiaren arduradunak—; izan ere, euskarazko idazlanak egin ahal izango dituzte, teklatu beharrik izan gabe, testua hizketa bidez diktatuta”. Dagoeneko erabat garatuta dagoen plataformak “euskaraz esandakoa transkribatu egiten du, eta hizketa bidezko komandoak erabiliz egin daitezke aldaketak edo zuzenketak”, azaldu du (ikusi [bideoa](#)).

Hizkuntza- eta hizketa-teknologiak oso baliagarriak dira hezkuntzaren munduan ikasle guztien inklusibitatea lortzeko bidean. Ikastetxeetako egunerokoan erabiltzen diren sistema eragileek, ofimatika programek edo onlineko zerbitzu gehienek integratuta daukate hizketaren sorkuntzako, itzulpen automatikoko eta hizketaren ezagutza automatikoko sistemak. Baina horietako gehienak ez dira erabilgarri euskaraz, eta ez daude haurren ahotsarako prestatuta.

Hain zuzen ere, Euskal Herriko Hizkuntza Industrien Elkartearen, Languneren, helburua da “hizkuntza-teknologiak bizitzako esparru guztietara zabaltzea eta teknologiaren inklusibitatea lortzea; besteak beste, kontuan hartzen dugu behar bereziak dituzten haurrek teknologia erabiltzeko zer zailtasun dituzten”, azaldu du



PRENTSA-OHARRA

Lohitzune Txarola Languneko zuzendariak. Hortik abiatuta, Orairekin elkarlanean ezarri ziren AskHezi proiektuaren oinarriak duela hiru urte.

Euskarazko hizketa testu bihurtzeko Oraik orain arte garatutako tresnak haurren ahotsak egokitzeko eta eredu neuronalak entrenatzeko, Euskal Herri osoko zenbait ikastola eta eskola publikotako 479 ikasleren ahotsak grabatu dira: 70.000 grabaketatik gora egin dira.

Hurrengo erronka: sistema martxan jartzea

Proiektuaren sustatzaileak pozik daude lortutako emaitzarekin: “Oso interesgarria eta polita izan da prozesua. Hizkuntza-teknologiaren eta adimen artifizialaren aplikazio oso baliagarria da hau, dibertsitate funtzionala duten haurrei euskaraz ikas dezaten laguntzeko tresna bat sortu baitugu”. Baina tresna erabiltzaileengana iristeko azken urratsa falta da.

“Plataforma garatuta dago, baina ez da ordenagailuan instalatuta soilik dabilen zerbitzu. Hizketa-teknologietako eta adimen artifizialeko tresna hauek sare neuronaletan oinarritzen dira eta sare neuronal horiek ordenagailu ahaltsuak behar izaten dituzte —azaldu du Oraiko ikertzaileak—. Plataforma bera hainbat haur edo gaztek erabili behar badute aldi berean, horrek azpiegitura bat eskatzen du, zerbitzariak behar dira horretarako. Eskalagarritasuna da gure erronka handiena orain”.

Behar bereziak dituzten umeen gurasoek eskatuta jarri zen AskHezi proiektua martxan, eta itxaropentsu daude tresna berriarekin: “Ikasketa-prozesu bat beharko dute gure seme-alabek tresna nola erabili, komandoak ikasi eta sistema probatzeko. Baina oso aukera ona zabaltzen zaigu euskarazko ikasketa-prozesuan aurrera egiteko”, dio Gabriel Martiarenak (proiektuaren bultzatzaile izan den gurasoetako bat).

AskHeziren sustatzaileek (Ikastolen Elkarteak, Seaskako Integrazio Batzordeak eta Sortzen Elkarteak) balio handia ematen diote proiektua aurrera ateratzeko izan duten lankidetzari: “Euskal Herriko hiru lurralde administratiboetako sare publikoko eta ikastoletako hainbat ikastetxek bultzatuta lankidetzan aritu gara behar berezi bat daukaten haurrek euskaraz ikasteko duten eskubidea bermatzeko lanean”.

Proiektuaren sustatzaileek, halaber, garrantzi handia ematen diete euskarazko diktaketa-sistema hau garatu ahal izateko jaso diren dirulaguntzei: Euroeskualdearen Akitania Berria – Euskadi – Nafarroa programak bi urtez lagundu du proiektua, eta Eusko Jaurlaritzak ere diruz lagundu du SPRIren Adimen Artifizial Aplikatu deialdiaren bidez.